

29/2022 EBAZPENA, urtarrilaren 10rekoa, Bilbo-Basurtu ESIko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Bilbo-Basurtuko ESIko Otorrinolaringologiako Atal Sanitarioko burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen den

AURREKARIAK

Bilbo-Basurtuko ESIko zuzendari gerentearen ekainaren 2ko 1208/2021 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Bilbo-Basurtuko ESIko Otorrinolaringologiako Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2021eko abenduaren 1eko EHAA 239 zk. eta 2021eko abenduaren 9ko BOE 294 zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2021eko abenduaren 30rean amaitu zen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Bilbo-Basurtuko ESIko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Bilbo-Basurtuko ESIko Otorrinolaringologiako Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea. (I. eranskina)

Bigarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Hirugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Bilbo-Basurtuko ESIko Zuzendaritza Gerentziari, hamar egun balioduneko epean, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Bilbo, 2022ko urtarrilaren 10rean.

Bilbo-Basurtuko ESIko zuzendari gerentea,
JESÚS MARÍA LARRAÑAGA GARITANO



Osakidetza
BILBO-BASURTU ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA BILBAO-BASURTO

ZUZENDARI GERENTE
DIRECTOR GERENTE
Ez/pt/Fdo.: Jesús Larrañaga Garitano

I. ERANSKINA

OTORRINOLARINGOLOGIAKO ATAL SANITARIOKO BURUA IZENEKO LANPOSTUA

Onartuen behin-behineko zerrenda:

- **Francisco Santaolalla Montoya jauna.**

Baztertuak:

- Inor ez.